




EKOBIDE

BIZIKLETAZ, MUNDU
GARBIAGO BATERANZ

SARRERA

Gure enpresaren izena Ekobide da, egurrez eta bezeroen neurritara egindako bizikleta ekologikoak eta motore elektrikodunak ekoizten ditugu.

Gure helburu nagusia bezeroen mugikortasuna erraztea eta ingurumena zaintzea izango litzateke. Horretarako, diseinu jasangarriak egiten ditugu, baliabide naturalak arduraz erabiliz eta ekoizpen-prozesu osoan zehar gerta litezkeen isuriak murriztuz. Gainera, gure bezeroei aholku pertsonalak eskaintzen dizkiegu, haien behar eta eguneroko ohituretara hobekien egokitzen den bizikleta eros dezaten.

Gure katalogoan bizikleta modelo ezberdinak ditugu:

- 1) Vintage modeloa: estilo bereziko vintage modelo elektrikoak aurki daitezke, forma bereziak, kolore distiratsuak eta erosotasun handia lortzen dituztenak, bizikletak garraiobide izateaz gain bakoitzaren izaera eta estiloa adierazten dituzte.
- 2) Fatbike modeloa: natura eta abentura maite dituztenentzako fatbike modeloak eskaintzen ditugu: 4" -ko pneumatiko zabalak edozein lur motatan (lokatza, elurra, harea...) flotatzeko gai dira, eta horri esker begi bistaz zailak diren eremuak erraztasunez zeharka daitezke.
- 3) Hiriko bizikleta elektrikoak: hirian etengabe mugitzen diren erabiltzaileentzat, gure hiriko bizikleta elektrikoak dira aukerarik egokiena: arinak, azkarrak eta isilak, eguneroko joan-etorrietan erosotasuna bermatuz.

Bizikleta guzti hauek ekoizteko, hornitzaileetatik beharrezko materialak erosten ditugu, ondoren material horiek gure lantegian eraldatzen ditugu bizikleta sortzeko eta azkenik bezeroari entregatzeko.